

Euskotrenek bi urte barru emango diren lau tren berri egiteko agindu du

Unitate horien kontratua CAF enpresari esleitu zaio, 32 milioi euroren truke.

Euskotrenek lau tren berri egiteko eskatu dio CAFi eta datozen bi urteetan emango dira. Unitate horiek Euskotreni, besteak beste, kirol, kultura eta jai ekitaldietarako zerbitzu erregularretan eta berezietan eskaintza zabaltzeko ahalmen handiagoa emango diote.

CAF enpresa beasaindarrak ia 32 milioi euroko (31.954.528) eta bi urteko exekuzio-epeko lau tren berri egiteko enkargua jaso du, lau kotxerekin eta gaur egun Euskotrenek kudeatzen dituen lineetan dabiltzan 950 serieko unitateen antzeko ezaugarriekin. Horiek behar bezala mantentzen direla bermatzeko, CAFek beharrezkoak diren parke-piezak ere hornituko ditu, eta horien gehieneko kostua 8 milioi eurokoa izango da.

Tren berriak bi urte barru sartuko dira zerbitzuan, eta, ondoren, eskaria handitzen lagunduko dute. Horri esker, topoaren handitze-lanak amaitu eta trazadura berri bat jarriko da martxan, eta, horren barruan, Amarako egungo geltokiak eta Donostiako hiru geltoki berriek dakartzaten zaku-hondoa kenduko da. Horri esker, maiztasun hobeketa eta ibilbide erosoagoak eskainiko dira.

Lau tren horien fabrikazioa Euskotrenek 2011n EMUS Serie 900 martxan jartzearekin hasi zuen material mugikorra modernizatzeko prozesuaren barruan kokatzen da. Prozesu hori azken urteotan EMUS Serie 950 sartzearekin osatu da, eta aurrekoekin alderatuta hobekuntza batzuk izan ditu, batez ere irisgarritasunari dagokionez.

Eskatu berri diren lau tren berri horiek 950 seriearen antzeko ezaugarriak izango dituzte. Izan ere, helburuetako bat unitateen teknologia- eta segurtasun-prestazioetan etengabeko hobekuntzak sartzea da, flota osoaren homogeneotasun-sentsazioa eskaintzen den bitartean barneko eta kanpoko diseinuan.

Alde nagusia trenen edukieran egongo da; izan ere, berriek lau auto izango dituzte, eta ez hiru; beraz, gutxienez 385 laguneko edukiera izango dute, eta horietatik %30 eseritako plazei dagozkie.

Era berean, material mugikorrek irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dagoen legeria beteko du, oinarrizko ezaugarri hauekin: kontraste kromatikoa,

aniztasun funtzionala duten pertsonentzat erreserbatutako espazioak, sarbide plazan argi-oharra arrapala automatikoarekin, gidariaren postutik arrapalak irekitzea, soinua aktibatzekeo sistemak, zoru irristagaitzak...

Igorpen data: 2021eko otsailaren 1ean

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES